Ordiziako Udala

2020ITGB0011

Ordizian, **2020ko urriaren 1ean**, udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZORDEA, ohiko deialdian, eta** honakoak bertaratu dira:

En Ordizia, siendo el día **1 de octubre de 2020** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garziandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

| | |
|---|---|
| Jon Ander Caballero Zubelzu | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Jose Miguel Santamaría Ezeiza | EAJ/PNV |

**IDAZKARIA**

Ana Urkizu Kerejeta

**BESTELA BERTARATU DIRENAK ETA FALTA DIRENAK**

Bolinaga jauna ere azaldu da.

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1.- 2020ko irailaren 17ko ohiko bilkurako akta onartzea.
2.- Zenbait txosten eta eskaera.
.- A.E.E.ren idatzia, Beasaingo Udaleko ofizialorde plazaren lehiaketari buruzkoa. Bertan parte hartu du.
.-2020ko aurrekontuaren aldaketari eta mailegu eskaerari buruzko informazioa.
.- Merkataritza eta ostalaritzarako bonoen bigarren txanda eta establezimenduen laguntza.
3.- Galde-eskeak.
.- Zaharren egoitza irekitzea
.- Idazkaria hautatzeko prozesua.
.- Batzorde Paritarioaren deialdia.
.-Zuhaiztin jarduerak egiten dituzten langileen ERTEak.
.- Laneko segurtasuna eta higienea.

**ASUNTOS TRATADOS**

**ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:**

1.- Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 17 de septiembre de 2020.
2.- Informes y solicitudes varias.
.- Escrito de A.E.E. sobre el concurso de la plaza de suboficial del Ayuntamiento de Beasain en el que ha tomado parte.
.-Información sobre modificación presupuesto 2020 y solicitud de préstamo
.- Segunda ronda de bonos para comercio y hostelería y ayudas a los establecimientos.
3.- Ruegos y preguntas:
.- Apertura de la Residencia de Ancianos
.- Proceso selectivo de Secretaria.
.- Convocatoria de la Comisión Paritaria.
.- ERTES del personal que realiza actividades en Zuhaizti.
.- Seguridad e higiene en el Trabajo.



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

.- Artxibo eta Idazkaritzako administrariaren erretiro-eskaera

.- Solicitud de jubilación de la administrativo de archivo y secretaría.

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan** **AMAIERA ORDUA: 15:15ean**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2020ko irailaren 17ko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2020ko irailaren 17ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

**1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 17 de septiembre de 2020**

Propuesta

**Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 17 de septiembre de 2020.**

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 4 (EH-BILDU ORDIZIA 3, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0
**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Alkate jaunak jakinarazi du gai zerrendan puntu bat urgentziaz sartzea eskatuko duela:

**2.- M.L.R.R. Artxibo eta Idazkaritzako administrariaren erretiro-eskaera**

Proposamena

.- 2020ko ekainaren 2an, tokiko gobernu-batzarrak M.L.R.R. Artxibo eta Idazkaritzako administrariaren erretiro eskaera onartu zuen, 2020ko abuztuaren 27tik aurrerako ondorioekin, eta bertan behera utzi zuen erretiro-primaren ordainketa.

.- Ezin izan da funtzionario horren behin-behineko ordezkapena egin 2020ko irailera arte, eta lanpostuaren eginkizunen eta edukiaren espezifikotasuna dela eta, beharrezkoa izan da erretiroa hartzen duen funtzionarioa eta haren ordezkoa elkarrekin egotea eginkizunak eskualdatu ahal izateko, kontuan izanik erretiroa hartu duen funtzionarioak hori onartu duela.

.- Erretiro-datak 2020ko urriaren 19tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hori guztia kontuan hartuta, hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

El Sr.Alcalde da cuenta de que va a solicitar la inculsión por urgencia de un punto en el Orden del día:

**2.- Solicitud de jubilación de la Administrativo de Archivo y Secretaría M.L.R.R.**

Propuesta

.- En fecha 2 de junio del 2020 la Junta de Gobierno Local acordó la jubilación de M.L.R.R., Administrativo de Archivo y Secretaría, solicitada con efectos 27 de agosto de 2020, dejando en suspenso el abono de la prima de jubilación.

.- Dado que la sustitución provisional de la citada funcionaria no ha sido posible hasta el mes de septiembre de 2020 y por la especificidad de las funciones y contenido del puesto ha sido preciso que la funcionaria que se jubila y su sustituta coincidan durante un tiempo para posibilitar el traspaso de funciones, a lo que la funcionaria que se jubila ha accedido.

.- La nueva fecha de la jubilación será con efectos de 19 de octubre de 2020.

A la vista de todo ello, se propone la adopción del siguiente,

• M.L.R.R., Artxibo eta Idazkaritzako administrari lanpostua betetzen duen funtzionarioaren erretiroa deklaratzea, 2020ko urriaren 19tik aurrerako ondorioekin, egun horretan iraungiko baita Udalarekin duen harreman funtzionala.
• Eskatutako prima ordaintzeko erabakia etenda uztea, korporazioak horri buruzko ebazpena ematen duen bitartean. Ebazpen hori funtzionarioari jakinaraziko zaio, egoki iritzitako errekurtsoak jar ditzan.
• Ebazpen honen berri ematea interesdunari.

PROYECTO DE ACUERDO

- Declarar la jubilación de M.L.R.R., funcionaria que ocupa el puesto de Administrativo de Archivo y Secretaría con efectos de 19 de octubre de 2020, fecha en la que se extinguirá su relación funcional con el Ayuntamiento.
- Dejar en suspenso el acuerdo de abono de la prima solicitada en tanto en cuanto la corporación adopte una resolución al respecto, resolución que será notificada a la funcionaria a efectos de que en su caso, interponga los recursos que estime convenientes.
- Comunicar a la interesada la presente resolución.

Gaia aztertu aurretik presazkotasunaren izaera bozkatu da.

**Presazkotasunaren bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 4 (EH-BILDU ORDIZIA 3, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0
**Beraz Alkate jaunak puntuaren presazkotasuna onartu dela adierazi du.**

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 4 (EH-BILDU ORDIZIA 3, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.-Zenbait punturi buruzko informazioa**

Alkate jaunak honako hauen berri eman du:

1.- Aitor Escalantek Beasaingo Udaleko ofizialorde plazaren lehiaketari buruz egindako idatzia.

Idazkari andrea

Beasaingo Udaltzaingoaren Ofizialorde-Udaltzainburuaren lanpostua betetzeko lehiaketa interesdunei alegazioak aurkezteko fasean dagoela jakinarazi du. Parte hartu duen hautagai bakarra A.E.E. izan denez, Ebaluazio Batzordeak

**3.- Informes sobre asuntos varios**

Sr.Alcalde informa sobre:

1.- El escrito de Aitor Escalante sobre el concurso de la plaza de suboficial del Ayuntamiento de Beasain en el que ha tomado parte.

Sra.Secretaria

Informa de que el concurso para la provisión del puesto de Suboficial-Jefe de la Policía Municipal de Beasain, está en fase de alegaciones a los interesados. Dado que el único aspirante que ha concursado ha sido

lehiaketa hautagai bakarraren alde ebaztea proposatu du. Beraz, egun batzuetako kontua da udal honetako udaltzainburuak bertako postua uztea.

Interesdunak horren berri eman du.

Funtzionarioen administrazio-egoerak deklaratzea Tokiko Gobernu Batzordearen eskumena da.

Hala ere, kideek erabaki dute, Tokiko Gobernu Batzordea egin aurretik adierazpen hori ebatzi behar bada, alkateak ebatziko duela, eta, ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeari jakinaraziko diola.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

2.- 2020ko aurrekontua aldatzea eta mailegua eskatu beharra.

Apirilean 2020rako onartutako aurrekontua aldatu egin behar dela azaldu du.

Aurreikusitako partiden bajak eta altak egin behar dira, eta aurreikusi gabekoak beste erara.

Onartutako aurrekontuak ere ez ditu bilduko onesten den unean aurreikusitako diru-sarrerak: OHZ baxua, gainbalioak, badirudi aurreikusitakoari eutsiko zaiola eta, gainera, urte amaierara arte gehiago biltzea aurreikusten da, zaborren tasa, baja, jabari publikoa okupatzeagatiko tasak (lehen hiruhilekoko merkatua ez da likidatu, mahaiak eta aulkiak, miradoreak, eta ez da likidatuko, COVIDagatik urte osoan hobaria eman duelako).

Murrizketa handiena Aldundiaren Foru Funtsetik dator, gutxi gorabehera % 20 murriztea aurreikusten baita.

Onartutako aurrekontua aldatzera behartu duten gaiei buruzko informazioa eman du.

Goiekiri kapitala handitzeko ekarpenak egin behar zaizkio, horietako bat 2020an, abenduaren 31 baino lehen eta beste bat 2021ean.

Maileguak ordaintzeko, 90.000.- € injektatu behar izan zaizkio Ordizia Lantzen SAri.

Mailegua eskatzeko beharrari dagokionez, 1.300.000 euroko mailegu baterako eskaintza eskatu zaie hainbat banku-erakunderi. Gehienez 1.300.000 euroko mailegua izango litzateke, eta xedapenaren arabera erabiliko litzateke.

A.E.E., la Comisión Evaluadora ha propuesto la resolución del concurso a favor del único candidato. Por lo tanto es cuestión de días la marcha del Jefe de la Policía Municipal de este Ayuntamiento.

El interesado lo pone en conocimiento.

Añade que la declaración de las situaciones administrativas de los funcionarios es competencia de la Junta de Gobierno Local.

No obstante los miembros acuerdan que caso de ser necesaria la resolución de dicha declaración antes de la celebración de la próxima Junta de Gobierno Local, sea el Alcalde quien resuelva dando cuenta posterior a la Junta de Gobierno Local.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

2.- Modificación del presupuesto de 2020 y necesidad de solicitud de préstamo.

Explica que el presupuesto aprobado en el mes de abril para el 2020 ha de modificarse.

Ha de procederse a bajas de partidas previstas y altas, por el contrario de las no previstas.

El presupuesto aprobado tampoco va a recaudar los ingresos previstos en el momento de su aprobación: IBI baja, Plusvalías, parece ser que se mantendrá a lo previsto y además se prevé más recaudación de aquí a fin de año, Tasa de basuras, baja, tasas por ocupación de dominio público (mercado primer trimestre no se ha liquidado, mesas y sillas, miradores, y no se liquidará porque se ha bonificado por el COVID todo el año).

La mayor merma es la el Fondo Foral de Diputación que se prevé una disminución de más o menos el 20%.

Va informando sobre las diferentes cuestiones que obligan a la modificación del presupuesto aprobado.

A Goieki es necesario hacer aportaciones para ampliación de capital, una de ellas en el 2020, antes del 31 de diciembre y otra en el 2021.

Ha sido necesario inyectar 90.000.-€ a Ordizia Lantzen S.A. para hacer frente al pago de los préstamos.

En cuanto a la necesidad de solicitud de préstamo se ha solicitado oferta para un préstamo de 1.300.000.-€ a diferentes entidades bancarias. Se trataría de un préstamo de 1.300.000.-€ como máximo, que se utilizaría según disposición.



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

3.- Hitzarmenerako eta ostalaritzarako bonuak eta establezimenduetarako laguntzak.

Lehen fasea atzo, irailak 30, amaitzen zen eta bestea gaur, urriak 1, hasiko da 2020ko abenduak 31 arte.

Lehen faseko oinarriak maiatzean onartu ziren, baina lehen fase horretarako baino ez ziren onartu.

Orain, bigarren faserako, oinarri berriak onartu behar dira.

Datorren urriaren 7an ezagutuko dira "Ordizian" merkatari Elkarteak irailaren 30ean bonuen kontsumoari buruz emandako datuak.

Tartea % 75eraino handitu da, hau da, fakturazioa % 25 murriztu zaien establezimenduentzat.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

3.- Bonos para convenio y hostelería y ayudas a los establecimientos.

La primera fase acababa ayer, 30 de septiembre y la otra comienza hoy 1 de octubre hasta el 31 de diciembre de 2020.

Las bases de la fase primera se aprobaron en el mes de mayo pero eran únicamente para esa primera fase.

Ahora para la segunda fase hay que aprobar unas nuevas bases.

El próximo 7 de octubre se conocerán los datos aportados por “Ordizian” Asociación de Comerciantes, sobre el consumo de bonos a 30 de septiembre.

Se amplía el tramo hasta el 75%, es decir, para aquellos establecimientos que reduzcan un 25% su facturación.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Zenbait txosten eta eskaera.**

Dubreuil jaunak honako puntu hauei buruzko informazioa eskatu du:

.- Maite Peñarekin izandako bilerari buruz galdetu du Zaharren Egoitza irekitzeari buruz.

Alkate jauna

Erantzun dio esanez oraindik ez dela bilerarako hitzordurik ezarri.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

.- Idazkaria hautatzeko prozesua:

Hautaketa-prozesua nola doan galdetu du.

Alkatea jauna

Erantzun dio esanez urriaren 8an kasu praktikoak egingo direla, eta, beraz, oposizio-faseko lehen ariketa amaituta geratuko dela.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

.- Batzorde Paritarioaren deialdia.

Noiz egingo den galdetu du.

**4.- Galde-erreguak**

Sr.Dubreuil solicita información sobre los siguientes puntos:

.- Pregunta sobre la reunión mantenida con Maite Peña en relación a la apertura de la Residencia de Ancianos.

Sr.Alcalde

Le responde que todavía no se ha establecido cita para la reunión.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

.- Proceso selectivo de Secretaria:

Pregunta cómo va el proceso selectivo.

Sr.Alcalde

Le responde que el próximo 8 de octubre se realizará el ejercicio de los supuestos prácticos, con lo que el primer ejercicio de la fase de oposición quedará finalizado.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

.- Convocatoria de la Comisión Paritaria.

Pregunta cuándo se va a celebrar.

Alkate jauna

Erantzun dio esanez deialdia biharko egingo dela, urriaren 2an izango dela, ostirala, 12:00etan.

Sr.Alcalde

Le responde que está convocada para el día de mañana, viernes 2 de octubre a las 12:00 horas.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

.-Zuhaiztin jarduerak egiten dituzten langileen ERTEei buruz galdetu du.

Alkate jauna

Erantzun dio.

.- Pregunta sobre los ERTES del personal que realiza actividades en Zuhaizti.

Sr.Alcalde

Le responde.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

.- Laneko segurtasuna eta higienea:

Gai honen inguruan zer lantzen ari diren galdetu du.

Alkate jauna

Erantzun dio Prebentzio Zerbitzuko enpresarekin hitz egin behar dela zerbitzua emateko modua ezartzeko. Oraingoz ez dira ezer egiten ari.

.- Seguridad e higiene en el Trabajo:

Pregunta qué se está trabajando en relación a este tema.

Sr.Alcalde

Le responde que hay que hablar con la empresa del Servicio de Prevención para establecer la forma de prestar el servicio. De momento no están haciendo nada.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Galde-erreguak**

Ez da izan

**5.- Ruegos y preguntas.**

No hay

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatu dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.

ALKATEAK / EL ALCALDE

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIAK / LA SECRETARIA ACCIDENTAL



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus